

PRENTSA-OHARRA

EAEko 2010eko Aurrekontuen Lege-egitasmoaren Bigarren Xedapen Gehigarrian LANBIDE Enpleguaren Euskal Zerbitzuaren sorrera dago jasota. Erakunde berria zuzenbide pribatuko ente publiko gisa eratuko da, eta bertan lan egingo duten langileak laboralak, funtzionarioak (enteak bereganatu dituen eginkizunetan ziharduten EAEko Administrazio Orokorrekoak), Egailan, S.A.ko langileak, eta Estatuko Enpleguaren Zerbitzu Publikotik eskumenarekin batera datozkionak.

Hori dela-eta, **ELA** eta **LAB** sindikatuak haxe adierazi dugu:

1. - Enplegu eta Gizarte-gaiak Saileko arduradunengana jo dugu argibide eske, baina prozesu osoa isil-gordean eramaten ari dela konturatu gara. Ez digute BATERE informaziorik eman, ondo neurtutako anbiguotasunaz jokatzuz. Gainera, sindikatuoi ezer zegoenik ukatzen ziguten bitartean, **LANBIDE – Enpleguaren Euskal Zerbitzuaren** Estatutuak dakartzan Dekretuaren zirriborroa plazaratu dute.

Azpimarratzekoa da, bestalde, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak zalantzan jarri duela prozesua eta eredua, ez baita, bere iritziz, tresnarik egokiena herri-administrazioak eskaini behar duen kudeaketa eskaintzeko. Baina aipaturiko txostena loteslea ez denez, nekez sinesten dugu Administrazioak jaramonik egingo dionik, eta ziurrenera, aurreko administrazioek Uraren Euskal Agentziari egin zioten kasu bera egingo diote.

2. - Eraginpeko langileei dagokienez, ez dira gauza izan egoera argitzeko, edo ez dute nahi izan (ez dakigu zer den larriagoa). Hau da, ez da azaldu prozesu horren ondorioz zelan geratuko diren jatorri bateko eta besteko langileak. Karrerako funtzionarioek, bitartekoek, langile laboral finkoek eta behin-behinekoek azalpenak eskatu dituzte kasuan kasuko zerbitzu-zuzendaritzan, baina ez diete oraindik erantzunik eman.

3. - Prozesu horren ondorioz, zerbitzua kontrol publikotik at geratuko da, eta gizarte osoa aterako da galtzaile, fiskalizazio- ahalmena galduko baitu. Gainbegiratzeko aukera bakarra Sailak gordeko du, baina aurrekontuetara mugatua; kudeaketa kontrolpetik kanpo geratuko da.

4. - Entearen langile-politika, beraz, Administrazio Kontseiluaren nahierara geratuko da, kontrol publikotik kanpo. Administrazio Publikoaren edozein kontratazio-motatan gertatzen ez dena, zeren baldintza jakinetan arautzen baita sarbidea, egonkortasuna eta abar.

5. - PNVren menpeko aurreko administrazioek egiten zuten bezala, orain “aldaketa”ren aldeko PSOEn gobernu hau ere joko bikoitzaz baliatzen da, sindikatuak saihesteko, eta interes alderdikoen arabera nahierara jokatzeko. . Hala eta guztiz ere, beste foro honetan sailburu andreak ez du informaziorik ematen, eta temati jarraitzen du bere horretan, LANBIDE zuzenbide pribatuko

ente publiko gisa eratzeke asmo horretan, aurka izan arren sindikatu guztiak, oposizioko talde politiko guztiak, eta langile guztiak. Eraginpeko langileei bereziki begirune eskasa erakutsi die.

6. - Azkenik, ELAk eta LABek Aurrekontu Legearen Bigarren Xedapen Gehigarria kentzeko zuzenketa aurkeztu dugu, eta harrera ona eman diote Legebiltzarreko taldeek.

Guk proposatu duguna zera da: LANBIDE berariazko lege baten bidez sortzea, behar den eztabaida egin eta gero, eta orain ez dituen txostenak edukita (hori da, hain zuzen, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostenean salatu dena); eta azken batean, zerbitzua Enplegu eta Gizarte Gaiak Sailaren beraren barruan uzteko eskatzen dugu, edo bestela, erakunde autonomo gisa eratzeke. Hori da bide bakarra kalitatezko zerbitzu publikoak herritar guztiei bermatzeko.